

Erradikalizazio biolentoaren prebentzioari buruzko nazioarteko mintegia

Hiru esperientzia
zehatz

Ekainak 6
Donostiako Kursaal
biltzar-jauregia

Euskadi, auzolana



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Ikuspegia

Mintegiaren antolatzaileek kontzeptu batzuei buruzko gogoeta sustatu nahi dute, hiru galderen inguruan. Hona lehenengoa: politika publikoen bidez zerbait egin ote daiteke erradikalizazio biolentoari aurrea hartzeko? Bigarrena: posible al da proposamen erabilgarriak eta efizienteak antzematea eta bultzatzea? Eta hirugarrena: nola, hau da, zer tresna eta estrategia baliatuta, urratu daiteke biolentziaren edozein adierazpen-mota saihesteko bidea? Esanguratsua eta onerako eraginkorra izan daitekeen bidez ari gara.

Eusko Jaurlaritzak erantzun bana eman die galdera horiei, abiapuntu eta lan-hipotesi gisa.

Lehenengo galderari dagokionez, irmo samar esan daiteke politika publikoek politika prebentiboetan inbertitu dezaketela, eta horixe egin behar dutela, hain zuzen. Izan ere, horrelako inbertsiorik ez egitea arduragabekeria izateaz gain, nolabait, mehatxatzen gaituzten arazoei aurre egiteko obligaziotik ihes egitea edo

hari zirkin egitea izango litzateke. Egiazki, prebentzioa edozein arlotan da egin daitekeen inbertsiorik errentagarriena; baina konplexuena ere bai, seguru aski.

Bigarren galderari erantzuteko ñabardura bat egin behar dugu. Ez dago proiektu prebentibo baten efizientzia aurrez bermatzeko modurik. Indarkeriari aurrea hartzea helburu duen hezkuntza-jarduera batek ez du bermatzen, eta are gutxiago epe motzean, gertaera biolentoak desagertuko direnik. Indarkeria baliatzea aukera baztergarria eta arbuigarria bilakatzera bideratu behar da prebentzioa. Prebentzioaren aldeko hezkuntzaren helburuak masa kritiko soziala sortzea izan behar du, soil-soilik bitarteko baketsuak erabiltzearen alde egiten duena, hau da, gertaera biolentoei erresilientzia ez-biolentoaren bidez erantzuteko gauza dena.


Hirugarren kontuari dagokionez (nola urratu bidea arrastoa utziko duen prebentzio-proiektu bati), hipotesi hau planteatzen dugu: erradikalizazio biolento guztiek kausa unibertsal erkideak dituzte. Mintegi honen bidez Eusko Jaurlaritzak aurkeztuko duen proiektuak hipotesi hori esploratzeko bideari ekiten dio. Ibilbide horren bidez antzeman nahi dugu zein diren kausa unibertsal horiek. Hori egin ondoren, kausa horiek ezagutzen laguntzen duten esperientzia pertsonalizatuetan islatzeaz gain, hezteko eta prebentzioa lantzeko helburuaz landu nahi ditugu.


Egitaraua


Donostiako Kursaal biltzar-jauregian izango da mintegia, ekainaren 6an (osteguna), 09:00ak eta 14:00ak bitartean.

 9:00etan
Harrera parte-hartzaileei.

 9:10ean
Mintegiaren inaugurazioa.

 9:30ean
Erresuma Batua. Peter Neumann arituko da bere ponentzia aurkeztuz. International Centre for the Study of Radicalisation (ICSR) zentroko zuzendaria da.

 10:00etan
Kanada. Anamaria Cardona Henaoren eta Roxane Martel-Perronen ponentziak. Kanadako Center for the Prevention of Radicalization Leading to Violence zentroko Elkarteen eta Partaidetza Komunitarioaren Ekipoko arduraduna eta Trebatzeko eta Abileziak Garatzeko Ekipoko arduraduna dira, hurrenez hurren.


 10:30ean
Euskadi. Jonan Fernandez Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiaren ponentzia. Erradikalizazio biolentoaren prebentzioari buruz Eusko Jaurlaritzak sustatutako gizarte- eta hezkuntza arloko materiala aurkeztuko du.

 11:00etan
Atsedenaldia.

 11:30ean
Mahai-ingurua eta eztabaida.

 12:45ean
Jarduera dinamikoa, bertaraturatutakoen ekarpenak jasotzeko.

 13:30ean
Mintegiaren amaiera.

 18:30ean
Egitarau osagarria
Ostegun horretan bertan, ekainaren 6an, “Bada zerbait herri honetako ekipoa batzen gaituena” izenburuko dokumentala estreinatuko da, Donostiako Principe Zinemetan (Eusko Jaurlaritzak erradikalizazio biolentoaren prebentziori buruz sustatu duen eta mintegian aurkeztuko duen gizarte- eta hezkuntza-arloko moduluaren parte bat da dokumentala).

Etortzekoa bazara, aurretik esan, telefono-zenbaki honetara deituz: 945.018.036.
